

# Prentsa oharra Nota de prensa



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko Zinegotzigoa  
Concejalía de Deportes y Vida Saludable



## **DONOSTIAK EUTSI EGIN DIO EMAKUMEEN KIROLAREN ERREFERENTZIAZKO HIRI IZATEARI**

Donostia Kirolak Estatuko maila goreneko emakumeen kirolari buruz urtero egiten duen azterlanaren ondorioek Donostiak lider eztabaidaezin gisa eta emakumeen kirolaren erreferente gisa duen posizioa indartzen dute. Ikerketa hau duela hamar urte baino gehiagotik egiten da, hirian emakumeen kirolak duen garrantzia nabarmentzeko eta ikusgarritasun handiagoa emateko asmoz, eta kirol modalitate kolektiboetan parte hartzen duten taldeak aztertu ditu (futbola, saskibaloia, eskubaloia, hockeya, boleibola, waterpoloa, errugbia, izotz-hockeya, softbola, areto-futbola, arrauna eta curling-a), baita atletismoa eta igeriketa ere, hainbat kategoriatako klubek arteko lehiaketa dagoelako.

Iñaki Gabarain Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko zinegotzia pozik agertu da "gure emakumezkoen taldeek modalitate guztietan egiten duten lanagatik. Beste hiri batzuei begiratzen dien ispilu bat gara, eta klub horiei eta haien kirolariei laguntzen jarraitzeko arrazoi bat. Donostia kirolaren hiria da, eta emakumearen papera, arlo horretan ere, funtsezkoa da, nabarmentzeko modukoa. Donostiar guztiok harro gaude Bera Bera eskubaloian, Atletico SS atletismoan, Real futbolan eta belar-hockeyan, IDK Euskotren saskibaloian, Txuri Urdin izotz-hockeyan, Txuri Berri curling-ean eta arraunean Donostia Arraun Lagunak eta Donostiarra bezalako klubek egiten duten ahaleginarekin, guztira emakumezkoen bederatzi talde euren modalitate gorenetan".

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Ikerketa honen emaitzen arabera, denboraldi honetan Donostiak aztertutako 14 kirol modalitateetatik 8tan jarraitzen du ordezkaturata, eta guztira bederatziz emakumezko talde daude bere modalitateen maila gorenean.

Horren ondorioz, Donostia bigarren postuan dago elitean emakumezkoen talderen bat duten Estatuko 91 udalerrietako sailkapenean (kopuru absolutuaren arabera), eta Bartzelonak soilik gainditzen du, 15 talde baititu.

Eliteko emakumezkoen taldeen kopurua herri bakoitzeko biztanleriarekiko aztertuz gero, Donostiak argi eta garbi mantentzen du hiriburuen arteko lehen lekua – talde bateko ratioa 20.971 biztanleko –, alde handiarekin talde kopuru handiena duen hiriarekin alderatuta, Bartzelona, 110.696 biztanleko equipo bat baitu.

Bigarren postuan Soria dago, talde bakarra duen arren 40.081eko ratioa lortzen baitu. Hirugarrenik, Santa Cruz de Tenerife ageri da, 5 talderekin 41.879 biztanleko ratioa duena, eta laugarrenik Lugo, talde bakarrarekin 49.095 biztanleko ratioa duena.

Euskal Herriko gainerako hiriburuei dagokienez, Donostia dago rankingeko lehen postuan, bai ekipoen kopuru absolutuari dagokionez, bai talde bakoitzeko biztanleen ratioari dagokionez. Iruña da Donostiara gehien hurbiltzen den hiriburua, 3 talde elitean eta 70.289 biztanleko ratioarekin. Ondoren Gasteiz dator, hiru talderekin (86.269 biztanle/talde), eta, azkenik, Bilbo, talde bakarrarekin (340.455 biztanle/talde).

Gainera, Donostia ez da erreferentea soilik talde kopuruagatik, baita ordezkaturata dagoen kirol modalitate kopuruagatik ere. Horrela, Donostiak 8 kirol modalitateta ezberdinetan taldeak ditu, Bartzelonarekin berdinduta, 8 modalitatetan ere taldeak baititu. Hurrengo hiria Kanaria Handiko Las Palmas da, taldeak 5 modalitate ezberdinetan dituenaa.